



ONARTU DUGU 2020KO AURREKONTUA

Abenduaren 19ko Osoko Bilkuran aho batez onartu genuen 2020ko aurrekontua, guztira 1.941.691 eurokoa. Horietatik 332.500 euro inbertsio errealetarako izango dira, eta hor sartuta daude, besteak beste, kirol anitzeko pista, Olaldeko urbanizazioa, kale argiteria, Aiako parkea eta plaza txukuntzeko lanak, Kaxio ibilbidea mantentzeko eta berritzeko lanak, eta bi taldeon artean adostu dugun akordioa gauzatzen hasteko kontu-sail bat.

Ohiko zergetan KPIa (% 0,8) igotzea erabaki dugu. Izan ere, Udalak dituen gasturik gehienetan ere igoera hori bera izango da, eta soberan geratzen den dirua herrian hobekuntzak egiteko erabiliko da.

Bestalde, ibilgailu historikoak zerga ordaintzetik salbuestea erabaki dugu. Ibilgailu historikotzat hartzen dira 25 urtetik gorako autoak. Zerga ordaintzetik salbuesteko, ordea, eskatu egin beharko da; eskaera egin eta hurrengo urtetik aurrera izango ditu ondorioak. Beraz, abenduaren 31 baino lehen eskatu beharko da 2020an salbuesia izateko. Horrez gain, hiru baldintza hauek bete beharko dira:

- Ibilgailuaren titularrak udalerrri honetan erroldatuta egon beharko du.
- Hobaria aplikatzeko, nahitaezkoa izango da zergen ordainketan egunean egotea.
- Jabe beraren ibilgailu bakarrari aplikatuko zaio hobaria.

APARKATU ONDO ETA IBILI LASAI!

Autoa uzteko leku faltarik ez daukagu, baina, hala ere, askotan behar ez den lekuan edo behar ez bezala uzten dugu. San Martingo plaza, esate baterako, noiznahi egoten da autoz beteta, eta noiznahi agertzen dira galtzada-harriak eta piloiak puskatuta. Lurpeko aparkalekuan, berriz, tarifa oso merkea izan arren, batzuek ez dute ordaintzen, eta erreserbatutako lekuetan uzten dute ibilgailua zenbaitetan. Hori guztia bideratze aldera, behartuta gaude neurri hauek hartzera eta zaintza zorroztera:

- 1.- Plazako aparkalekua zamalanetarako eta erosketak egiteko bakarrik erabili ahal izango, eta, hortaz, gehienez 30 minutura utzi ahal izango da ibilgailua.
- 2.- Gauean ezingo da aparkatu.
- 3.- Lurpeko aparkalekuan ezingo da erreserbatutako lekuetan aparkatu, eta tiketa jarri beharko da.

GABILLENKO APARKALEKUA

Gabilleneko aparkalekuan erreserbatuta dauden lekuak umeak uztera eta jasotzera doazenek erabiltzeko dira. Hortaz, gehienez ere 5-10 minutu utzi ahal izango da ibilgailua.

GIMNASIOKO ETA BOULDER GELAKO BAZKIDETZA BERRITZEA

Gimnasioko eta Boulder gelako giltzak abenduaren 31n baliogabetuta geratuko direnez, urtarriletik aurrera zerbitzuak erabiltzen jarraitu nahi baduzue, ordainketa egin eta agiria udaletxera ekarri behar duzue, eta giltza hemen aktibatuko dizuegu.

Hauetako prezioak:

Gimnasioa: Hilabetea 10 €

Urtea 60 €

Boulder gela: Urtea 15 €

Txartel familiarra: Urtea 100 € (Boulder gela barne)

Oharra: Familia txartelaren onuradun izateko, etxebizitza berean erroldatuta egotea nahitaezkoa izango da.

Giltza bakoitza: 10 € (giltza itzultzean bueltatu egiten da dirua)

Kontu-zenbaki honetan egin behar da ordainketa: 2095 5026 87 1060153888 (Kutxababank).


TXISTUA JOTZEN IKASI NAHI DUZU?


Ataungo Udalak txistu-ikastaroa antolatuko du 2020an. Interesa baldin baduzu, idatzi mezua komunikazioa@ataun.eus helbidera edo bidali Whatsapp 616758758 telefono-zenbakira urtarrilaren 7a baino lehen. Izena ematen duzuenekin bilera egingo dugu urtarrilean, eta han emango ditugu argibideak.


OLENTZERO ETA MARI DOMINGI AIAN

Aurten Aiako Erroipen izango da Olentzero eta Mari Domingiren ongietorria, abenduaren 24an, 18:30ean. Joan behar duzuenok, mesedez, Kaxetatik igo; bestela, trafikoa gorabeherak sortzen dira eta. Ekitaldia bukatu ondoren, nahi izanez gero, Urkillagatik ere jaitsi daiteke.

komunikazioa@ataun.eus

 616758758

 @Ataungo_Udala

 Ataungo_Udala

GORDE EGUN HAUEK AGENDAN

Badator 2020. urtea, eta dagoeneko baditugu hitzordu batzuk. Aurrerago jakinaraziko ditugu xehetasun gehiago, baina, nahi baduzue, gorde agendan egun hauek:

- Urtarrilak 18: **Emakumeen Master Cup**, binakako txapelketa, Ataunen hasiko da.
- Urtarrilak 26, **Zaldi urdina** antzezlan.
- Otsailak 28, **Kafka** antzezlan.

TAMAINA HANDIKO TRASTE ZAHARRAK ATERATZEKO EGUTEGIA

Zer atera daiteke? Altzariak, koltxoiak, etxetresna elektrikoak (garbigailuak, hozkailuak, ordenagailuak, telebistak...) eta tamaina handiko bestelako traste erabilezinak...

Ez dira atera behar... Eskonbroak eta obretako bestelako hondarrak (tarima, bainuontzi, komunontzi, baldosa, azuleju...)

- Gurpilak, egurrezko paletak, arropa...
- Kristalak, ispiluak, eta objektu ebakitzailak
- Hondakin arriskutsuak (bateriak, fluoreszenteak, pinturak...).

Inausketa-hondarrak (adarrak...) Beasaingo garbigunean hartzen dira soilik.

1. eta 3. astearte gauetan

Ataun

EGUTEGIA 2020

URTARRILA	7,21
OTSAILA	4,18
MARTXOA	3,17
APRILA	7,21
MAIATZA	5,19
EKAITA	2,16
UZTAILA	7,21
ABUZTUA	4,18
IRAILA	1,15
URRIA	6,20
AZARDA	3,17
ABENDUA	1,15

Ataunen, 2019ko abenduaren 19an.

ALKATEA



komunikazioa@ataun.eus

616758758

@Ataungo_Udala

Ataungo_Udala

ATAUNGO UDALA OSATZEN DUTEN BI TALDEEN ARTEKO AKORDIOA 2019-2023 LEGEALDIRAKO

Ataungo Udala osatzen duten bi alderdien (EH Bildu eta EAJ-PNV) ordezkariok ados gaude egokiena dela herriak dituen premia nagusiei elkarrekin aurre egitea eta erantzun bateratua ematea. Hortaz, konpromisoa hartzen dugu idatzi honetan jasotzen diren proiektuetan lankidetzan aritzeko, harik eta legealdia amaitu arte.

PROIEKTUAK

- 1.- Uraren sare nagusia berritu eta ura tratatu.
- 2.- Erabilera anitzeko azpiegitura egin San Martingo plazako Botikan, parte-hartze prozesu baten bidez.
- 3.- Mendiak zaindu eta baserri-bideak konpondu.
- 4.- Herri guztia zeharkatzen duen bidea, "Kaxio bidea", konpondu eta azken zatia amaitu.
- 5.- Zuntz optikoa herrigune guztietara (San Gregorio-Ergoiena-Aia) eraman.
- 6.- Herria zeharkatzen duen errepide nagusia aztertu, eta hobetu edo zabaldu beharreko puntuak zein diren erabaki.
- 7.- Don Juan Arinek egindako toponimia lana aztertu, eguneratu eta erabilgarri jarri.

Eta, ados gaudela adierazteko, dokumentu hau izenpetzen dugu, Ataunen, 2019ko abenduaren 10ean.

EH Bilduren Udal ordezkariak



Handwritten signatures of EH Bilduren Udal ordezkariak, including names like M. Aramendi, Maider, and others.

EAJren Udal ordezkariak



Handwritten signatures of EAJren Udal ordezkariak, including names like J. Arriola and others.